

**2009KO EKAINAREN 10EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hamarra

HILABETEA: Ekaina

URTEA: Bi mila eta bederatz

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatz

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Jon Kortaberria Lasa

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2009ko maiatzaren 29ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute, berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK LIZITATZEA

a.- Kale Nagusia oinezatzeko obrak kontratatzeko baldintza plegua eta deialdia egiteko proposamena onartzea.

Aho batez ondorengo erabakia onartu da:

Lehenik. 1 Areako kale Nagusia oinezatzeko eta plaza berritzeko (I eta II fasea) urbanizazio obrak prozedura irekia eta izapidetze arruntaren bidez kontratatzeko baldintza plegu administratiboa nahiz baldintza plegu teknikoa onartzea.

Bigarren.- Deialdi publikoa egitea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, ondorengo xehetasunen berri emanez.

- Lizitazio prezioa: 1.376.308,30 €, BEZ barne.

- Enpresa sailkapena: A taldea, 2 Azpitaldea, b maila.
C taldea, 2 Azpitaldea, b maila
C taldea, 6 Azpitaldea, c maila
E taldea, 1 Azpitaldea, c maila
I taldea, 1 Azpitaldea, c maila

- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Web orrian.

- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.

- Egikaritze epea: 43 aste.

.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da. Eguna eta ordua kontratatzailearen profilean adieraziko da.

- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Adjudikazio irizpideak: Proposamen ekonomikoa: 70 puntu.
Obraren azterketa. Lanen egitaraua: 25 puntu
Epea: 5 puntu

b.- Gernika Pasealekuko parkea estaltzeko obrak kontratatzeko baldintza plegua eta deialdia egiteko proposamena onartzea.

Aho batez ondorengo erabakia onartu da:

Lehenik. Gernika Pasealekuan aisialdiko gunek bat Ionarekin estaltzeko zimendatze eta estruktura obrak prozedura irekia eta premiazko izapidearen

bidez kontratatzeko baldintza plegu administratiboa nahiz baldintza plegu teknikoa onartzea.

Bigarren.-, Deialdi publikoa egitea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, ondorengo xehetasunen berri emanez.

- Lizitazio prezioa: 320.777,06 €, BEZ barne.

- Ez da klasifikaziorik eskatzen.

- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Web orrian.

- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %5a.

- Egikaritze epea: 12 aste.

.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 13 egunetan.

- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da. Eguna eta ordua kontratatzailearen profilean adieraziko da.

- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

- Adjudikazio irizpideak: Proposamen ekonomikoa: 40 puntu.
Obraren azterketa. Lanen egitaraua: 60 puntu

Premiazko izapidea egitea erabaki da ondorengo arrazoiarengatik: kale Nagusia oineztatzeko eta plaza berritzeko obrak berehala hasiko dira eta horrek ekarriko du plazan ezin izango dela egin astero azoka. Gernika Pasealekuko aisialdi gunea estalian egingo da, baina horretarako beharrezkoa da, gune hau udazkenari hasiera ematerako babestea.

3.- HITZARMENA. Beasaingo Udalaren eta ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, S.A.U. artean lankidetzarako hitzarmena onartzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA, S.A.U sozietatearekin sinatzea proposatzen den hitzarmenaren edukia:

BILDUTA

Alde batetik,

RAFAEL URIBARREN AXPE JAUNA, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Goreneko Landa Ingurunearen Garapena Departamenduko Foru Diputatu gisa.

FLORENTINO UGALDE ATXAGA JAUNA, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenaren ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA S.A.U. Sozietate Publikoaren Gerente gisa, emanak zaizkion ahalmenen erabilpenean Fermin Lizarazu Aramayo Notario jaunaren aurrean, 2007ko irailaren 24ean emandako 4.350 zenbakia duen protokolodun botere eskrituraren arabera

Eta bestetik, **PATXI PLAZAOLA MUGURUZA JAUNA**, Beasaingo udalerraren izen eta ordezkaritza arituz, bertako Alkate-Presidente gisa.

Bi alde partehartzaileek elkarri honako LANKIDETZA HITZARMENA izenpetzeko ahalmena aitortzen diote, eta efektuetarako,

AZALTZEN DUTE

LEHENENGO.- Gipuzkoako bailara estuetan barna eman den hiriguneen hedapenak, halabeharrezko nekazal eta abeltzantza aktibitatearen desplazamendua ekarri du, kalitate agrologiko handiagoko lurretatik, mekanizatorako zailtasunak suposatzen dituzten beste lurretara. Eta honek era berean, bailara hondoetan kokatutako lur emankorretan burutzen zen nekazal eta abeltzaintza tradizionalaren aktibitatearen mailakako gutxitze bat ekarri du. Maila handi batean, Gipuzkoako gizartean suertatutako aparteko garapena, gure baso eta zelaiak zaintzen dituen aintzinako kultura honen kaltetan burutu da.

BIGARRENA.- Gipuzkoa Europako lurralde garatuenean buruan dago, eta ez du BPGren arabera txikia den, baina dibertsifikazioan eta kalitatean aberatsa den sektore bat hiltzen utzi behar. Horregatik, eta dinamika hau arintzeko eta 2007-2011 legealdirako Gobernu Foralak hartutako kudeaketa orientazio berrien exekuzioan, Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A.U. Sozietate Publikoak, Landa Ingurunearen Garapena Departamenduaren bidez, bere jarduera planak berplanteatu ditu gorenezko lehentasun moduan **LANDA LUR BANKU** baten sorrera ezarriz. Honakoak dira bere jardunbideak: 1) Landa edo balio agrologikodun lurren plangintza, kudeaketa eta kontserbazioarako instrumentu eta politikak abian jartzea. 2) Azpisektore estrategikoetan gipuzkoar produkzio eta nekazal egiturei languntzea. 3) Landa esparruko ekintza ekonomikoen dibertsifikazioari sustengua ematea. 4) Belaunaldi berrien etorrera, balio erantsiaren sorkuntza eta sektorearen kudeaketaren bikaintasuna bermatzen duten neurrien diseinua. 5) Gure mendien kudeaketa iraunkorraren sustapena.

HIRUGARRENA.- Guzti horregatik, agertu diren alderdiak jakitun dira, **LANDA EREMUARI BULTZADA** emango dion **LANDA LUR BANKUAN** lurak gehitzea helburu duten esfortzu eta ekintzak bateratzeko beharraz, eta ondoko lankidetzarako hitzarmena sinatzea adostu dute, hurrengoak direlarik bere

KLAUSULAK

1.- Objektua.-

Hitzarmen honen objektua Beasaingo Udaletxearen eta Etorlurren artean lankidetzarako marku bat ezartzea da, udalerraren landa eremuari bultzada ematearen helburuaz, elkarrekin

beharrezkoak diren ekintzak aurrera eramateko, aldi berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren landa ingurunean eskuhartze eta garapenerako funtsezko elementua den Etorlurren LANDA LUR BANKUAREN bidez bere lurren kudeaketa iraunkorra bermatuz.

2.- Jardunbideak.

Hitzarmen honen markuan, ondoren azaltzen diren ekintzak aurrera eramatea adosten da:

a.- Finkatutako helburuak lortzeko erabilgarri izan daiteken informazio oro elkarri erraztu eta trukatzeari.

b.- Beasaingo udalerriaren landa ingurunearen interesen onurarako komenigarri diren ekintzak elkarrekin sustatzea (aholkularitza, kudeaketa ezberdinak, biltze lanak etb...).

c.- Etorlur Sozietate Publikoarekin aipatutako sozietateak kudeatuko duen LANDA LUR BANKUARI indarrean dagoen legeriak baimentzen dituen formula juridikoen bidez, udal lurren ekarpena egin ahal izateko beharrezkoak diren dokumentuak izenpetzea.

d.- Hitzarmen hau luzarorako jarraipen ustearekin sortzen denez, gehienezko malgutasun eta dinamismoarekin azaltzen da, momentu oro, jarraitzen diren helburuak lortu ahal izateko erabilgarri gerta daitezkeen neurriak jasotzeko aukera dagoelarik.

3.- Hedapena.

Honako hitzarmen honen edukiaren hedapen publikoan, hala nola, bertan aurreikusitako ekintzen ondorioz lortutako emaitzen hedapenean, izenpetu duten aldean partehartze paritarioa espresuki agerian utziko da.

4.- Jarraipena.

Hitzarmenaren zehaztasuna eta garapen egokiaren egiaztatzea, helburu honekin sortutako Jarraipen Batzorde batek burutuko du non hitzarmena sinatu duten bi alderdiak ordezkatuak egongo diren, eta hitzarmen honen mugen barne egongo diren garatu beharreko ekintzak definitu eta hitzarmenaren betetzea bermatuko duen.

5.- Iraunaldia.

Lankidetzaren hitzarmen honen iraunaldia **BI (2) URTEKO** iraupenez ezartzen da, bere sinadura unetik kontatzen hasita eta automatikoki urtebeteko denboraldiz luzatuko da, alderdi batek uko egiten ez duen bitartean, uko egite hau urtebetetzearen mugaeguna baino bi (2) hilabete lehenago sinesgarritasunez gauzatu beharko delarik.

6.- Etorkizuneko jarduerak eranstea.

Honako lankidetzaren hitzarmenaren sinaduraren ondorioz sortutako ekintzak egikaritu ahal izateko formalizatutako dokumentu guztiak, eranskin moduan jasoko dira.

7.- Hitzarmenaren iraungitzea.

Honakoak izango dira Hitzarmena iraungitzeko zergaitiak:

- Iraunaldi epearen betetzea.

- Sinatu duten alderdien adostasuna

-Alderdi batek hartutako konpromezua ez betetzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Fernando Boada jaunak esan du, berak ez duela hitzarmena sinatzea onartuko, oso orokorra delako eta ez delako batere zehazten edukia.

Horren ondorioz, bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, EB, PP)
Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 0
Etorri gabea: 1 (EA)

Beraz, onartu egin da proposamena.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

MANUFACTURAS OLARAN

Ezagutzera eman da Manufacturas Olanar enpresak garatzen zuen jarduerari eten egin behar diola eta enpresa itxi egingo dela.

BIRIBILGUNEA

Ezagutzera eman da zeramika tailerrekoek hainbat bozeto egin dituztela eta erabaki ondoren zein izango den anbulategiko biribulgunean jarriko dena, materialak enkargatuko direla egin ahal izateko.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko hamarrak hogeita bost gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.